


# noaua



## JOAN MARI TORREALDAI 2. BEKA DEIALDIA

Proiektuak urriaren 21era bitarte aurkeztu ahalko dira, eta 14.000 euro eskuratuko ditu irabazleak / 14-15

ARGAZKIA: NOAUA



NOAUA

**Santixabeletako Umeen Egunean izena emateko epea zabaldu dute** / 05



NOAUA

**Egurrezko Sagardo Txapelketa igande honetan jokatuko da Aginagan** / 08



NOAUA

**Aitzaga: "Mila esker, urteotan proiektuaren parte izan zareten guztioi!"** / 10-11



NOAUA

**Udarregi ikastolak jaigiroan agurtuko du ikasturtea** / 22





# Goieko

GOI MAILAKO EKOLOGIA

☎ 943 634 536 🌐 [www.goieko.com](http://www.goieko.com)

## edaritegia BORDATXO

Pintxo bereziak

Bokatak

Plater konbinatuak

22:00ak arte IREKITZEN DUGU!

Zubiaurrenea, 5. ☎ 943 37 10 42



Patrienea Jatetxea  
Bazkariak, astelehenetik igandera  
Afariak, ostirala eta larunbata

# Patri



kale nagusia 14. **USURBIL**  
☎ 943 362 725 - 688 690 361

# Eredu energetiko jasangarriago baten aldeko hitzarmena

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Usurbilgo Lanbide Eskolak energia-aurrezpena eta energi-efizientzia sustatzeko lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu dute.



Isidro Zaldua Usurbilgo Lanbide Eskolako zuzendaria eta José Ignacio Asensio Jasangarritasuneko diputatua, aurreko osteguneko sinadura ekitaldian.

Hitzarmen honen xedea da bi erakundeen arteko lankidetzeta-sistema bat ezartzea jasangarritasun energetikoarekin lotutako hainbat arlotan.

Lanbide Eskolak eta Foru Aldundiak hartutako konpromisoen artean daude, besteak beste, energia aurrezteko eta

efizientzia energetikoa lortzeko ekintzak batera sustatzea, Gipuzkoan energia berriztagarriak modu jasangarrian erabiltzea, eta beste eragile garrantzitsu batzuekin koordinatzea, hala nola, erakunde publikoekin, unibertsitateekin, enpresekin eta elkarteekin.

Akordio horrek energiaren ikuspegi soziala bultzatzen du, lehentasunak klima eta pobrezia eta kalteberatasun energetikoa murriztea izan daitezten. Era berean, ezinbestekotzat jotzen du energia-eraginkortasunerantz eta energia-iturri berriztagarrien garapen eta

hedapen handiago baterantz joatea, baita tokiko sorkuntza-saretarantz ere.

## 50.000 euroko ekarpena

Jarduera horiek guztiak garatzeko, Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak 50.000 euro jarriko ditu gutzira.

## Garbigune mugikorra, Kalezarren

Ekainaren 6tik aurrera, garbigune mugikorra Kalezarren izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Ekainaren 13an garbigune hau Kaxkora, Mikel Laboara eramango dute.

## 1950. urtean jaio zirenei deia

Datorren urtean 75 urte beteko dituzten herrikiideak biltzeko asmoa dute. Parte hartu nahiko luketen guztiekin hartuemanetan jarri nahi dute. Horregatik, bi telefono zenbakiotara deitzeko gonbita egin diete 1950ean jaioetakoei: 645 736 726 / 678 398 852.

## Karmele Jaioren liburu aurkezpena Pelaiioenean

*Maitasun kapitala* (Elkar) bere sortze lana aurkeztuko du Kalezarren Pelaiioenean kokaturiko Usurbilgo Emakumeon Etxean. Ekainaren 12an 18:30etan iragarritako saiorako gonbidapenak usurbilkultura.eus plataforman eskura daitezke.

## Jaietako zikiro janerako txartelak

Hilaren 29an egingo da zikiro-jana. Iaz bezala, egun bat finkatu dute txartelen salmentarako. Ekainaren 16an igandea, 30 eurotan (20 eurotan gazteek eta langabetuek) erosi ahalko dira eguerdiko 12:30ean Aitzaga elkartearen (Askatasuna plaza aldetik sartuta).

**noaua**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea:**  
Noaua Kultur Elkarte  
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil  
943 360 321  
elkartea@noaua.eus

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:**  
Aiaitz Aizpurua.

**Erredakzio kontseilua:**  
Aritz Lasarte, Ixaso Orbegozo,  
Imanol Ubeda.  
**Diseinua:** Goiena.  
**Publizitate arduraduna:**  
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321  
publizitatea@noaua.eus  
**Banatzaleak:**  
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.  
**Lege Gordailua:** SS-668-96.  
**ISSN:** 1136-6818.

**Tirada:** 2.980 ale.  
**Imprimategia:**  
Antza inprimategia. Zirkuitu  
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.  
**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaua.eus



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



**Usurbilgo Udala**

## IRITZIA



ALAZNE ARRUTI

## Babarrunak tuperrean

**A**zkenaldian, plan bat bestearen atzetik pilotzen hasi zait. Eta nire harridurarako, gauzei ekiteko gogoz eta indarrez sentitzen naiz. Izan ere, mareak bezalaxe, aldakorra izan daiteke gure inguruarekiko nahasteko gogo. Pertsonak animalia sozialak garelako esan ohi da. Baina azken urteetan, kobazuloan sartzeko gogo gehiagorekin ibili naiz, kanpoan hara eta hona, motxila eta ideiak soinean ibili beharrean.

Baina badirudi barruan piezaren bat mugitu zaidala, eta dagoeneko aspaldian ematen ez nion horri espazioa ematen nabilela. Edo agian egunaren argitasuna izango da, udaren gertutasuna sumatzen hasia naizela.

Aurrekoan adibidez, etxean telelana egiten nabilela, lanaldia bukatu eta bilera batera irten beharra izan nuen presaka bazkaltzeko astirik gabe. Irten aurretik, ostean etxera itzuli eta beranduago bazkalduko ote nuen pentsatzen hasi nintzen. Baina gorputzak eta gogoak ezetz esan zidaten. Beraz, amak eginak zituen babarrun eltzea zabaldu, hauen usainarekin tripak orroka hasi eta tuperrean sartu nituen, fruta apur batekin batera.

Bilera arina izan zen, baina gustura aritu nintzen ohi bezala jende berria ezagutu eta esperientzia ezberdinak partekatzen. Batzuetan, alferrik prestatu ohi dira gidoi eta edukiak. Alferrik lehertu garunak,



"Potxoenea eraikinaren aurreko egurrezko mahaian eseri nintzen".

egin beharreko aurre hartu eta prestaketa lanetan. Batzuetan, entzun, jaso, eman edo itzuli egin behar izaten da, buelta askorik eman gabe. Eta uste baino emaitza erraz edo argigarriagoak lortu daitezke egitura informal eta gizatiarretatik. Halaxe amaitu genuen, gosetuta eta bakoitza bere bidera itzuleran.

Dagoeneko urdaila seriozoki kezaka nuen eta gainerakoak agurtu bezain laster, eguzkiak hartuta zuen txokoren batean esertzeko amorratzen nengoela, Potxoenea eraikinaren aurreko egurrezko mahaian

**"EGUZKIAREN  
GOXOTASUNEAN  
KOILARAKADAKA  
HASI NINTZEN. ETA  
ORDUANTXE ADITU  
NUEN AHOTS  
EZEZAGUNEKO  
"ON EGIN" BAT"**

eseri nintzen. Orduan konturatu nintzen ni bezalaxe, jendea ere atzera aurrera zebilela. Haurrak, guraso, senide eta bestelako zaintzaileak parketik barrena. Jendea enkarguak egitera bidean, taberna hornitzaileak karga eta deskargan eta baita bilera ezberdinetako partaideak pareko atean barrurantz zeharkatzen ere. Eta ni hantxe, guztiaren erdian eta erabat desorduan bazkaltzen hasi berria nintzelarik.

Tuperra zabaldu eta eguzkiaren goxotasunean koilarakadaka hasi nintzen. Babarruna, hauen salda eta patata, presarik gabe dastatzen. Eta orduantxe aditu nuen ahots ezezaguneko "on egin" bat. Beste pare bat koilarakada bat eta "provecho" hurrena. Eta azken arrastakoak garbitzen ari nintzela, 3.n agurra, ordu laurden eskasean. Eta aspaldian, bakarrik eta jendaurrean, halako patxadan ezkutatzekorik gabe egon gabea nintzela pentsatu nuen.

## Emakumeen Etxeko deialdiak

**Ekainak 10/24, astelehena**  
17:00-19:00 Sexu-aholkularitza zerbitzua Kalezarko Pelaieneako Usurbilgo Emakumeon Etxean. Hitzordua eskatzeko: 650 232 714 943 377 112  
info@xelebreak.com  
emakumeonetxea@usurbil.eus

**Ekainak 12, asteazkena**  
18:30 Karmele Jaioren "Maitasun kapitala" liburuaren aurkezpena Emakumeon Etxean. Gonbidapenak usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri.


**Uztailak 10, asteazkena**  
15:00-18:00 Aholkularitza juridikoa eta psikosoziala Kalezarko Pelaieneako Usurbilgo Emakumeon Etxean.

**Informazio gehiago:**  
Belmonte kalea, 8  
943 377 112  
emakumeonetxea@usurbil.eus

Antolatzailea: Usurbilgo Emakumeon Etxea.

## Idazketa tailerra Yolanda Arrietarekin

Usurbilgo Udalaren Kultura Sailak emandako sormen beka baliatuta, "Memoria Berriak" izeneko idazketa tailerra eskainiko du Yolanda Arrietarekin. Tailerra udal liburutegian, ekainaren 11n, 18:30etan. Izena liburutegian bertan eman beharko da.





# Lehen sorosle eta sorospen ikastaroa Usurbilen

Ikastaroa ekainaren 17tik 28ra luzatuko da. Izena emateko epea zabalik da [www.dyagipuzkoa.com](http://www.dyagipuzkoa.com) web orrialdean.

Ekainaren 17an hasiko da ikastaroa eta DYAk Munalurra auzoan duen egoitzan izango da. Ikastaroan edonork eman dezake izena, ez da beharrezkoa aurrez ezagupenik.

Ikastaroa ekainaren 17an hasi eta 28an amaituko da, eta ordutegi hau izango du: astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 21:00etara.



Ikastaroa bukatzen dutenek sorosle titulua eskuratuko dute.

## Ikasgaiak

Ikastaroan, egunerokotasunean aurki daitezkeen arrisku egoerei nola erantzun irakatsiko dute. "Bihotz eta birika susperketa, zauriak, hausturak, erredurak... Ezagupen oso arruntak baina laguntza asko eman dezaketen hauek, oso modu eroso eta atseginean erakusten dira eta teoria eta praktika alderdiak ikutzuz", DYAtik.

## Sorosle titulua

Ikastaro amaierako frogak gainditzen dituenak, DYA Gi-

puzkoak eskaintzen duen sorosle titulua eskuratzeko aukera izango du.

## Prezioa

Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, deitu 943 46 46 22 telefono zenbakira edo sartu [dyagipuzkoa.com](http://dyagipuzkoa.com) web helbidera. Plaza kopurua mugatua izango da.

Matrikularen prezioa, ikastarorako txostena barne, 120 eurokoa da.



Ekainaren 19an amaituko da ginkanan zein erronkan izena emateko epea.

# Jaietako Umeen Egunean izena emateko garaia da

Uztailaren 1eko erronkan eta ginkanan parte hartu nahi duten gaztetxoek aldeztatik eman behar dute izena.

Jaietarako hilabete falta da baina batzuk hasi dira jada prestaketa lanetan. "Santixabeletako Umeen Eguna antolatzen ari gara. Gauzak errazte aldera, eskertuko genuke izena-ematea aurrez egitea", ohar bidez jakinarazi dutenez.

Uztailaren 1ean ospatuko da Umeen Eguna eta, besteak beste, "ginkana (LH1-4 bitarteko ikasleentzat) eta erronka (LH5-DBH2 bitarteko ikasleentzat) antolatzeko asmoa dugu. Ho-

rretarako, jakina, ezinbestekoa da zuen partaidetza". Bi modutara egin daiteke izen-ematea. Kontuan izan ekainaren 19an amaituko dela epea:

- Ikastetxeko orrialdean izen-abizenak eta ikasmaila adieraziz.
- E-posta bidez, santixabelak.umeen.eguna@gmail.com helbidera idatziz.

Oharra: Erronkan parte hartuko dutenek aldatzeko arropa eraman beharko dute.

## Jolasak eta euskaraokea Santuenean

Jolasak eta musika tartekatuko ditu Santuenea Kultur Elkarteak iganderako, ekainaren 9rako, iragarri duen arratsalde pasan. 16:30etan hasita, "gure txikitako jolasetan parte hartzeko aukera paregabea

izango dugu familia giroan: txingoa, txapak, xiba, goma, sokasaltoa...". Jolastu ostean, abesteko aukera. "Gorka Mendirekin karaoke saioa egingo dugu euskal abesti gustagarrienekin".

## Euskal dantzak eta frontenisa Aginagan

4 urtetik gorako haurrentzat eskaintza iragarri du Aginagako San Praixku guraso elkarteak hilabete honetarako:

- Frontenisa: astearte eta asteazkenetan, 15:00-16:15 artean.

- Euskal dantzak: astelehen eta ostegunetan, 15:00-16:15 artean. Izen-emateko deitu 695 723 192 telefono zenbakira. Saio hauen prezioa, 25 euro haur bakoitzeko.

Okindegia-Gozotegia  
LABE-GOXO

txirriStra  
PLATER KOMBINATUAK  
BOKATAK · PINTXOAK  
7ABERNA  
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Partzi  
bazkariak EGUNERO  
afariak ostirala eta larunbata  
© 943 362725 · © 688 690 361



Daniel Scott, plazaratu berri duen "Herriz Herri" liburuxka eskuetan duela.

# “Kanpoan bizitzeak nire herriaz gehiago pentsarazten dit”

DANIEL SCOTT IDAZLEA

Argentinatik duela hamabost urte iritsi zenetik, Argentinako eta Euskal Herriko errimagingtan leporaino sartuta egon da Daniel Scott. "Herriz herri" izeneko liburua plazaratu berri du.

**Hamargarren koplak, rap eta bertso liburuxka kaleratu duzu. Bat amaitu orduko proiektu berriarekin hasten zara?**

Lehen liburua pandemia etorri baino lehen kaleratu nuen, 2019an. Hura nire terapia bilakatu zen, eta hortik aurrera askoz gehiago argitaratzeko aukera izan dut. Lagunei oparitzeko asmoz egin nituen lehen ale horiek. Gerora, ordea, pandemia iritsi zen eta asko zaildu zizkidan horrek zabalkundea egiteko aukerak. Hala ere, 'Herriz herri' liburua aurkezteko aukera izan nuen eta jainkoari esker ondo joan zen. Horrek bultzada eman zidan geroz eta gehiago idazteko eta onuragarri bilakatu da nire bizitzarako.

Harrera ona izan zuten liburuek eta pixkanaka gehiago egiten hasi nintzen. Horrela jarraitu nuen eta azken liburu honekin hamar ditut kalean. Urtean, batez beste, bi liburu argitaratzen saiatzen naiz. Beti egiten dut liburuarekin itzulia Euskal Herrian zehar, edo hegoaldeko probintzietan, behintzat.

**"LIBURUA ARGITARATU ONDOREN BETI EGITEN DU ITZULI MODUKOA EUSKAL HERRIAN ZEHAR"**

Iparraldera joatea ere gustatuko litzaidake, horretarako liburu oso bat euskara hutsean eginda. Azkena euskaraz eta gaztelaniaz da.

**Lan honek bertsoak, olerkiak, koplak eta rapak biltzen ditu. Honako honetan bertsoek hartzen dute zatirik handiena.**

**"POETRY SLAM ASKO GUSTATZEN ZAIT, POESIA ESZENARATZEA. HORREKIN HASI NAHI DUT"**

Momentuaren arabera erabakitzen dut zeri eman pisu gehiago. Rap gutxi jarri ditut oraingoan eta gaztelaniaz. Aurreko liburuan gehienak argitaratu nituen eta oraingoarentzat gutxi batzuk geratu zitzaizkidan. Hurrengorako ia ez daukat rapike euskaraz eta berriak asmatu beharko ditut zerbait gehiago jarri nahi izango badut. Bertsoek hartzen dute leku gehien asko sortzeko aukera izan dudalako. Orain olerkiarekin hasi naiz, eta indartsu eman dit horrek. Beti metrikarekin eta erritmoarekin sortu izan ditut lanak, baina orain, poliki-poliki olerkiak idazten ere hasi naiz modu libreago batean. Batzuetan errimarekin eta beste batzuetan ez. Poetry slam ikaragarri gustatzen zait, poesia eszenaratzea, eta horrekin hastea ere gustatuko litzaidake. Disziplina berriak probatzen ditut eta gustatu egiten zaizkit.

**Bertsoak, koplak eta rapak nahi-ko antzekoak izan daitezke oso aditua ez den norbaitentzat.**

Bertsoek Argentinako koplekin dute antzik handiena. Normalean, metrika zurruna izaten dute: 10-8ko neurriarekin, esaterako, eta oina edo errima bigarren lerroan. Koplan ere errima kontuekin gauza bera gertatzen da, beti bigarren lerroan jartzen da. Neurria izan ohi da ezberdinagoa, zortzi silabako neurria izanda lerro bakoitzeko. Batzuetan posible da bederatzi izatea ez delako bertso gintza bezain zurruna. Rapa ezberdinagoa da.

**Argentina duzu hizpide hainbatetan, zure sorterrria. Inspirazio iturri zaizu?**


Bai, beti. Argentina eta Euskal Herria hizpide izaten ditut askotan, baina Argentina nire sorterrria da. Kanpoan bizitzeak nire herriaz gehiago pentsatzera eramaten nau. Beti izaten dut begirada bat Argentinan jarrita, eta oraingo egoera politiko-soziala ikusita, zer esanik ez. Oso egoera ekonomiko eta sozial gogorra ari da pasatzen



→ herria. Urte eta erdirako itzuli ginen Argentinara duela hiru urte edo. Duela urtebete itzuli ginen martxoan berriro. Pisu hori beti du nire bihotzean Argentinan gertatzen denak. Inspirazio iturri argia da niretzat egoera ere oso aldakorra eta gogorra ari delako bihurtzen bertan.

**Munduko herri kulturetan musika eta dantza estiloak oso anitzak dira, baina maiz antzekotasunak ere izaten dituzte. Argentinako musika kulturalak eta Euskal Herrikoak badute zerikusirik?**

Ezberdinak direla esango nuke. Uste dut desberdintasun nagusia tradizioa zaintzeko nahia eta lana direla. Argentinan kunbia asko dago, RKT eta halako eragin tropikala. Nik ere bi RKT egin nituen, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz. Nazioarteko musika estiloek ere indar handia dute herrialdean. Hala ere, nik faltan botatzen dudana Argentinako kulturarekin nahasketa gehiago egitea da. Bertako instrumentu tradizionalekin eta halakoekin. Hori asko ikusten dut hemen, Euskal Herrian, gazteen artean nahasketa egiten dutela pop edo rock musikatik abiatu eta trikitixa edo txalaparta nahastuta, adibidez. Niretzat hori izugarria da eta asko gustatzen zait. Oso eredugarria iruditzen zait. Argentinan ere halakoak egiten dira, baina oso gutxi eta polita da ikustea nola bakoitzak berera ekar ditzakeen nazioarteko musika genero nagusiak. Gazteen artean nabari dut bertsoaritzan ere badagoela indarra. Maila altua dago eta gizarteak garrantzia handia ematen dio halako ohiturak jarraitzeari. Gazteek, gainera, horrekin jarraitzeko prestutasuna erakusten dute eta bertsolari gazte pila bat dago. Argentinan inprobisatzaileak raparekin bakarrik aritzen dira gazteen artean, free stylean aritzen dira. Pasadoreak eta kopleroak falta dira, ordea, kitarra edo



"Argentinara itzuli ginenean, Euskal Herria faltan sumatzen genuen".

danborrarekin inprobisazioan arituko direnak.

**Urte asko daramatzazu hemen. Zeure burua argentinartzat edo euskalduntzat duzu?**

Biak sentitzen naiz batera: argentinarrak euskaldun berria naiz. Uste dut poliki-poliki erdi eta erdi sentitzen naizela. Oraindik, agian, argentinarra izango naiz gehixeago, baina 25 urterekin Bartzelonara joan nintzen eta lau urte han egin ostean, Euskal Herria etorri nintzen. Egun, 41 urte ditut, eta beraz, denbora asko daramat hemen. Ez da urteengatik bakarrik. Jada modu naturalean hartzen ditut hemengo ohiturak, hizkuntza, mundu ikuskerak... Oinarri ditut nire argentinarraren kultura. Beraz, uste dut nahasketa naizela.

**"HEMEN GERATZEKO ASMOZ ITZULI GARA. GURE ETXEA HAU DELA SENTITZEN DUGU"**

**Sentitzen duzu Argentinarekiko herriminek? Noiz joan zinen azken aldiz? Maiz joaten zara?**

Ez naiz askotan joaten Argentinara, egia esan. Argentinara joan ginenean duela hiru urte han bizitzen geratzeko asmoz egin genuen, betiko han geratzeko asmoarekin. Gu oso gustura egon ginen Euskal Herrian, 9 urte generamatzen orduan. Semeak autismoa dauka eta guretzat proba gogorra zen familiarengandik urrun egotea. Momentu hartan, familia eta betiko lagunak babesa behar genuen. Atsedean hartu eta etxean egoteko beharra geneukan. Onura emozional bikaina izan zen Argentinan egotea. Joan ginenean ez genekien inoiz itzuliko ginen, agian, bai, agian, ez. Nahiz eta gure espe-

**"MUSIKAREKIN LANEAN ARI NAIZ, YOUTUBEKO KANALEAN BIDEOKLIPAK ZINTZILIKATUZ"**

rientzia oso ona izan Euskal Herria eta semea ere bertan jaioa izan, momentu hartan gorputzak Argentinara itzultzeko eskatu zigun. Behin han geundela, Euskal Herria faltan sumatzen genuen, eta bat-batean, sei bat hilabete han generamatzen bertsoak eta rapak sortzen hasi nintzen eta euskaraz ateratzen zitzaizkidan. Argentinan euskarari konektatuta egoteko beharra sentitu nuen. Emazteak eta biok otoitz egin ostean, gu oso kristauak baikara, jainkoaren gidaritza eskatu eta itzultzeko asmoak bakea eman zigun. Semearen terapeutarekin ere hitz egin genuen ea halako aldatetek nola eragin ziezaiekeen ulertzeko, eta ideia ona iruditu zitzaion Ikerren herria delako Euskal Herria. Zalantza euskararekin geneukan, logopedian erronka izan daitekeelako gure semearen kasuan hitz egitea. Esan zigun oker geundela hipotesi horrekin, ona izaten dela haurrek hizkuntza bat baino gehiago jakitea eta haiekin kontaktuan egotea burmuinaren plastikotasunarentzat. Horrek ere itzuli egin behar genuela erakutsi zigun, eta hemen gaude berriro. Hemen geratzeko asmoz itzuli gara. Ez dakigu hil arte edo urte askotarako izango den, baina hau da gure etxea.

**Zein dira zure hurrengo proiektuak?**

Nire proiektu handiena idaztea izan da beti, eta orain horrek bere horretan jarraitzen badu ere, musikarekin burubelari ari naiz lanean rapak egiten eta youtubeko kanalean zintzilikatzen bideoak. Koplarap izeneko kanalean rapak egiten ditut, bai euskaraz, bai gaztelaniaz. Proiektu bera da, aipatzen aritu garen bi kulturak uztartu eta poliki-poliki esperimintatzen ari naiz. Bertso bat ere badut kanalean. Inprobisaziotik sortzen dira bertsoak, baina abesteko askorik ez dagoela ikusita, hortxe jarri nuen neurea.



Egurrezko sagardo txapelketaren antolatzaileak, iragan astean Zubietako Iruinen egindako agerraldian.

# Etorkizuna, "egurrezko ontzietan"

Egurrezko ontzietan ondutako sagardoan Euskal Herriko 6. txapelketa egingo da ekainaren 9an, estreinako Sagardo Egunetik kanpo eta Usurbilen beharrean Aginagako Eliza Zaharra Elkargunean, antolatzaileek iragan astean Zubietako Iruin sagardotegian iragarri zuten.

Jakoba Errekondok hasieratik argi utzi zuenez, txapelketa hau egiten dute, "sagardoaren etorkizuna egurrezko ontzietan dagoelako". Ildo horretatik segita, "geroz eta garrantzia handiagoa eman nahi diogu". Aipatu moduan, oraingoan, Aginagan egingo da, bertako Eliza Zaharrean, eremu hau kudeatzen duen elkarguneko kideekin lankidetzan.

## "Usurbil sagarraren bihotza, sagardoaren kultura"

Ekimen hau, urtean zehar sagarraren eta sagardoaren kultura sustatzeko antolatzen den hitzorduetako bat dela nabarmendu zuen txapelketa hau ahalbideratzen lagunduko duen Usurbilgo Udaleko alkate Agurtzane Solaberrietak. Sagardo Egunaz haratago, "ekimen asko eta askotarikoak antolatzen dira Usurbilen,

sagarraren eta sagardoaren bueltan". Horren erakusle argia da hain zuzen, "bere garaian sagardogintzaren bueltan aritzen garen eragile askok sortutako *Usurbil sagarraren bihotza, sagardoaren kultura* marka eta marka horrenpean osatzen den agenda". Agenda horren baitan iragarri izan da aurreko edizioetan lerrootan mintzagai dugun txapelketa. "Kasu honetan, badago gainera, asmo bat, sagardogintza egiteko modu hori, belaunaldiz belaunaldi transmititu izan den jakintza eta ezagutza hori galdu ez eta indartzekoa", Solaberrietaren esanetan.

## Sagardoaren Mahaia

Etorkizunera begirako txapelketa da, beraz, honako hau. Aurrera begira dira baita sektore honetan lankidetzan dabilen herri eragileak. "Etor-

kizunean ditugun erronka horiei elkarrekin erantzuteko gune bat eskaintzeko bokazio horrekin abiatzen da berriz ere Sagardoaren Mahaia", iragarri zuen bertako kide den Usurbilgo alkateak. Errekondok eginiko aurreikuspena ahotan hartuta, alkateak gaineratu zuenez, "etorkizuna egurrean izango bada, balio dezala ekimen honek ere horretarako. Alde horretatik, ahalegin hau egiten ari diren eragileak zoriondu nahi ditut".

## "ETORKIZUNA EGURREAN IZANGO BADA, BALIO DEZALA EKIMEN HONEK ERE HORRETARAKO"

Eragileon artean Udala egongo dela ziurtatu zuen. 7.000 euro bideratuko ditu txapelketa honetara eta lehiaketako "Herriko Etxea" sari nagusia, Udalaren eskutik banatuko da. Maider Larrañaga somelierra (Arteaga, Arrasate), Dani Corman (Basque Culinary Center, Donostia) eta Irati Amondarain enologoa (Andoain) arituko dira epaile lanetan. Larrañagak goraiatu nahi izan zuen "zer kalitate ederreko produktuak ditugun eta noraino ahal garen heldu".

## Euskal Herriko Egurrezko Sagardo Txapelketa

### Ekainak 9, igandea

Aginagako Eliza Zaharra Elkargunean:

**09:30** Aginagako Eliza Zaharra Elkargunearen egoitza irekiera.

**10:00** Dastaketaren hasiera. Epaimahaiak lehen dastaketa batean, azken dastaketara igaroko diren sagardoak aukeratuko ditu.

**12:30** Lehiaketaren azken dastaketa. Sagardo sarrituen hautaketa eta azken fasera heldutakoen sailkapena.

**Ondoren**, sari banaketa:

- 1. saria: Usurbilgo Herriko Etxea Saria diren 1.000 euro eta Sariaren Ziurtagiria.
- 2. saria: Alkartasuna Kooperatibaren Saria, 450 euroko txartela sagardogintza materialetan gastua egiteko eta Sariaren Ziurtagiria.
- 3. saria: Alkartasuna Kooperatibaren Saria, 100 euroko txartela sagardogintza materialetan gastua egiteko eta Sariaren Ziurtagiria.

**Oharra:** sagardoa ekarri duten partaide guztiei dastaketan parte hartzea eskatuko zaie.

**Antolatzaileak:** Alkartasuna Kooperatiba eta Sagardoaren Unibertsitatea.

**Laguntzaileak:** Usurbilgo Udala, Aginagako Eliza Zaharra Elkargunea, Euskal Sagardoa.



# "2023ko Euskal Sagardoa leuna eta lurrintsua izan da"

Euskal Sagardoa jatorri-deiturak 2023ko uztako sagardoa aurkeztu zuen aurreko astean Pasaiako Albaola Itsas Kultur Faktorian. 85 produktu ezberdin aurkeztu zituzten.

Euskal Sagardoa osatzen duten Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako 48 sagardogileen 85 sagardo aurkeztu zituzten aurreko astean Albaolan Itsas Kultur Faktorian. 250 sagargileren sagarrak baliatu dituzte. "Uzta handia izan da kopuruz 2023koa, eta lortu den sagardoa orekatua da, ahoan leuna eta lurrintsua", Euskal Sagardoako sustatzaileek aditzera eman dutenez. Guztira, 6 milioi kilo bildu dira azken biketan eta horrekin 4 milioi litro Euskal Sagardo egin ahal izan ziren.

Sagardotegi eta sagardo bakoitzak ordea, bere berezitasunak ditu. Bide horretan, gauza bereziak merkatuzten ari dira Euskal Sagardoa Jatorri Deituraren markarekin: lursail jakineko sagardoak, sagar mota jakinekoak, ondutakoak, egurrean garatuak, eta abar.

Euskal Sagardoa zigilua daramaten sagardoek bi ezaugarri nagusi dituzte: %100 bertako sagarrarekin eginak dira eta kalitate-bermea dute. "Baina hirugarren ezaugarri bat ere badute, dibertsifika-



2023ko uzta osatzeko, bertako 250 sagargileren sagarrak baliatu ziren.

ziorako aukera zabaltzen ari direla. Horretan zeresan handia dute, sagasti berrien diseinuak eta merkatura egokitzeko jarraitzeko sagardogileek duten interesak".

## Komertzializazio bideak

Euskal Sagardoak komertzializazio bideak indartzen egin

du lan azken urteetan, ostalaritzan eta salmenta zuzenean zein on line salmentan. Aurreko urteetako biderei jarraitkortasuna eman eta salmentak areagotzen jarraitzea da helburua. Horretarako, komertzializazio bide bakoitzerako estrategiak garatzen ari da ekintza ezberdinak antolatuz.

# "2024ko sagardotegi garaia positiboa izan da. Giro atsegina eta lasaia izan da nagusi"

Albaolan eskainitako prentsaurrekoan, 2024ko sagardotegi garaia iruzko balorazioa egin zuten. "Positiboa izan da", zioten. "Giro atsegina eta lasaia nabarmendu da aurtengo denboraldian gure sagardotegietan. Pandemiaren gerozko joerari eutsi dio aurtengo denboraldiak ere. Larunbata eguerditarako izan dira eskari gehienak eta baita larunbata gauerako ere. Igande eguerdian irekita egon diren sagardotegiek ere mugimendu handia izan dute. Asteazken zehar sagardoa dastatzeko irrikan elkartzeko diren sagardozaleak egun ere garrantzia berezia dute". Horretaz gain, igo egin dira sagardotegietan erreserbak menuari eta txotxari dagokionean. Eta geroz eta bezero gehiago baliatu dute

online erreserba egiteko aukera.

## Dastatzeak eta bisita gidatuak

Badira urte batzuk sagardo sektoreak dastatze edota bisita gidatuak martxan jarri zituenetik. "Bi produktu hauek oso erakargarriak dira lagun giroan sagardotegira gerturatzeko diren bertako bezeroentzat". Sagardo sektoreak bere eskaintza gastronomiko eta kulturala landu eta komunikatu du denboraldian zehar bertaratzen diren bezeroek esperientzia borobila izan dezaten. Sektoreak dagoeneko garatuta dauka sagardotegiari dagokion Plan Estrategikoa eta Sagardo Upategien Turismo Plana. "Horiek ditu ardatz urtez urte eskaintza

osatu eta geroz eta anitzagoa den bezeroari hainbat proposamen egiteko. Denak ere kalitatezko produktu baten baitan antolatutakoak", Euskal Sagardoak-eko kudeatzaileek aditzera eman dutenez. "Denboraldiari begira nabarmentzekoa da % 40 areagotu dela iazko urtearekin alderatuz dastatze, bisita eta beste-lako irteeren kontsumoa".

## Online salmentak, gora

Azken sagardotegi garaian, "sagardotegietan sagardoa online erosteko hainbat euskarri ikusi ahal izan ditugu. Informazio-gune hauek balio izan dute, besteak beste, denboraldian izan dugun sagardoaren online salmenta ere %33an igotzeko".

## Udaran irekita izango diren sagardotegiak

- Aginaga (Aginaga), txotx egiteko aukera.
- Araeta (Zubieta), terraza aukera.
- Iruin (Zubieta), terraza aukera eta txotx egiteko aukera.
- Saizar (Kalezar), txotx egiteko aukera.

## Nola egin erreserba?

Sagardoa.eus web orrialdean aukera dago erreserba egiteko, bai mahaia erreserbatzeko baita irteera edota txangoak erreserbatzeko ere.

Informazio iturria: Euskal Sagardoa.



Aitzagaren 30. urtemuga jaialdiko ekitaldi nagusiko pasarteetako bat.

# Gogotik ospatu dituzte Aitzagaren 30 urteak

Abestu egin zioten, errezitatu, baina batez ere omendu, oroitu eta eskertu. 30 urte bete dituen Aitzaga Kultur Elkarteak komunitateko kideak, herritarrak eta bisitari andana batu zituen ekainaren 1ean egin zuten egun osoko jaialdian.

Frontoia lepo bete zuen kontzertu gauak eman zion amaiera borobila, aurrez herrian osatu berri den Fanfarrikant Brass Band taldeak gogotik girotutako kalejira arrakastatsuari nahiz Askatasuna plazako aterpean 300 bat lagunekin eginiko herri bazkariari. Eguna, halere, Aitzaga atariko karpagunean hasi zuten, urteurren ekitaldiarekin. Urtemugaren harira sortutako ikus-entzunezko baten bidez, hiru hamarkada hauen ibilbideko hainbat mugarri,

bizipen, une gogor eta gozoak oroitu zituzten. Herrikideek ondutako "hamaika borrokaren aterpe eta elkargune", auzolanaren ikur izan dela oroitarazten duen abestia ere aurkeztu zuten. Hiru hamarkada hauen hegaldiaz mintzatu ziren Aitzagako kideak. Eskerrak helarazi zizkieten urtemuga ospakizunak ahalbideratu zituztenei baita 30 urteotan Aitzaga kide izan eta egitasmoari ekarpena egin dutenei. "Zuena da gaurko jaialdia!", adierazi zieten.

## "Herria egitea" xede

"Herritarrentzako biltokia eta ezker abertzaleko komunitatearentzat arnagune izatea xede hartuta" abiarazi zuten herri egitasmo hau duela 30 urte. Orduetik, "proiektu zabala,

**"ZUEK GABE AITZAGA EZ LITZATEKE EGUN DENA IZANGO. ESKERRIK ASKO!"**

irekia, ezkerrekoa, abertzalea, feminista eta euskalduna izateko norabidean nahiko lan eta izerdiren ondorio da gaur egun daukagun harribitxia", nabarmendu zuten. Urte hauetan guztietan, "zer ez dugu egin Aitzagan?", galdetu zuten. Izan ere, "hasiera indartsua izan zuen proiektuak. Urteetako prozesu, auzolan eta bazkideen konpromisoari esker jaio zen 1994an eta hasieratik herriarentzat erreferentziazko leku bilakatu zen", beti xede bereekin; "herria egitea, Usurbil egitea". Horregatik, ziotenez, "Usurbil ezin dugu ulertu Aitzaga gabe".

Garai latzik jasan behar izan du Aitzagak ere. "Jasan behar izan genituen ilegalizazioak eta sei urteetan lokala itxita egon behar izan genuen". 18 urte beranduago gogorazizutenez, "inoiz ez duzue proiektua gelditzerik lortu eta ez duzue herriaren nahia suntsitu". 2024ra etorrita, "elkartea osasuntsu" dagoela jakinarazi zuten. "Herriarentzat Aitzagak erreferentziazko gune izaten jarraitzen du", besteak beste, belaunaldi berrien bultzadarekin batera. Larunbatekoa, ibilbidea, eta etorkizuna ospatzeko eguna izan zela adierazi zuten. "Eskerrak eman nahi dizkizuegu Aitzagaren 30. urteurren jaialdia aurrera ateratzen lagundu zenuen guztioi eta bertaratu zinenetoi! Zuek gabe Aitzaga ez litzateke egun dena izango. Eskerririk asko Usurbil!".

## Irulegira bisita

Jaialdiaren osterako Aitzaga K.E.-k ekainaren 15ean Irulegiko aztarnategira goizpasa bisita gidatua antolatu du. 8:00etan Bordatxo taberna paretik. Izena aurrez eman beharko da Aitzagan.

**ARANKA BERRIKUNTZAK**  
 · Fatxadaren estaldurak · Estalkien berriztatzeak  
 · Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa  
 · Igeltseritza orokorra  
**606 37 21 05 USURBIL**

**Antxeta**  
 TABERNA  
 egunero irekitzen dugu!  
 · eguneko menua · asteburuko menua  
 · oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...  
 paellak enkarguz!  
**943 54 43 12** Zubiaurrenea 6, Usurbil.

**ZENDOIA ENEA** taberna  
 Kale Nagusia 35, Usurbil

**URDAINTZI S.L.**  
 Eraikuntzak  
 urdaintzi@euskalnet.net  
 IT-ak egiten dira  
**649 43 54 75**  
**943 36 72 64**  
**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**





300 lagun baino gehiago elkartu ziren Askatasuna plazako bazkarian.



Aitzaga K.E.-ren 30. urtemuga jaialdirako sortu duten irudia eta leloa.



Aitzaga oroitzeko karpaguneko ekitaldia jendez lepo bete zen.



Kontzertu gaura joandako jendetza dardaratu zuen kontzertu gauak.



Usurbilgo Fanfarrikant Brass Bandek eguerditik kantuan jarri zuen herria.



Herrian sortu berria den Fanfarrikant taldeko kideen argazkia.




Delirium Tremensek, Zea Maysek eta Olaia Inziartek girotu zuten gaua.




Eskertza eta oroimen hitzak elkarteko kideen ahotan, jaialdi hasieran.





Hauxe da kutxako  
giltzarrapoa.



## Giltza

Mari Purtzilen  
altxorren kutxa  
zabaltzeko,  
giltzarrapoaren giltza  
behar da. Zein da?  
Aurkitu nahi baduzu,  
formari erreparatu  
behar diozu.

## HAN eta HEMEN

Badira hogeitau gauza bi irudietan ageri  
direnak. Ea aurkitzen dituzun.



## SOSLAIA

Zein da zomorro itsusi honen silueta zuzena?









Joan Mari Torrealdai bekaren deialdiko sustatzaileak eta bekadunak, estreinako edizioko sortze lana eskuartean dutela.

# Torrealdai bekaren edizio berria abian da

"Euskal kultura azterketa gaur" izango da Joan Mari Torrealdai bekaren bigarren deialdiko gaia. Torrealdai duela ia mende erdi hasitako liburugintzaren azterketa berrikusi eta azterketa eredu hau arlo gehiagotara hedatzea izango du xede deialdi honek.

"Euskal kultura azterketa gaur", horixe izango da Joan Mari Torrealdai bekaren bigarren edizioko gaia, sustatzaileek, Jakin Fundazioak eta Usurbilgo Udalak iragan astean Zumarteko ganbaran eginiko agerraldian iragarri zuten. Torrealdai duela ia 50 urte, 1976an hasitako eta gerora Jakinek segida emandako liburugintzaren azterketa berrikusi eta berau arlo gehiagotara zabaltzea xede izango du, Udalak eta aipatu fundazioak lankidetzan sustaturiko deialdiak. Liburuen bidez gizartea aztertzea xede zuen Joan Mari eginiko ikerlanak hainbat ondorio argigarri utzi dizkigula oroitu zuen Jakineko zuzendari Lorea Agirrek: esaterako, gure liburugintza berredizio gutxikoa zela, irakurle berriak irabazteko arazoak zeudela,

kanpoko argitaletxeak zirela nagusi, argitalpenen %65a haur eta gazte literatura eta testu-liburuak direla edota transmisioak ez zuela behar bezala funtzionatzen. Torrealdai badiu lanketa hauen ispilu diren bi argitalpen eta bere beste lanketa ildoekin lotua dagoela gogorarazi zuen Agirrek: euskararen zapalkuntzaren historiarekin edota gaurko gauzatu ezin izan den eta Torrealdai amesten zuen liburutegi nazionalarekin.

## "Etorkezunari so egiteko"

Torrealdai izandako lan egiteko "idea berbera berreskuratu nahi du aurtengo deialdiak eta gaur egunera aplikatu", Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak azaldu zuenez. Aurtengo beka deialdiarekin, "garaiko egoerak aztertu eta

etorkizunerako bideak planteatu" nahi dira. Alkatearen esanetan, "kulturgintzak eta, orohar, euskal herrigintzak ezinbestekoa du hausnarketa hori etorkizunari so egiteko eta hain justu horri erreparatzen dio 2024ko beka deialdiak".

## 2. Joan Mari Torrealdai beka

**Beka deialdiaren xedea:** kultur ikerketak eta egitasmoak sustatzea, bereziki Joan Mari

## "KULTURGINTZAK ETA EUSKAL HERRIGINTZAK EZINBESTEKOA DU HAUSNARKETA HORI"

Torrealdai jorratutako esparru nagusietan.

**Gaia:** "Euskal kultura azterketa gaur".

**Ikerlanaren helburuak:** Joan Mari Torrealdai duela ia 50 urte hasitako liburugintza azterketa berrikustea eta azterketa eredu beste arloetara zabaltzea.

**Lanaren ezaugarriak:** gehienez 12.000 karaktereko luzera izan eta euskaraz idatzi behar da.

**Aurkezpena:** banaka edo taldean aurkez daitezke lanak jmtbeka@jakin.eus helbidean. Bi dokumentu aurkeztu behar dira: batetik, eskatzailearen datuak (izen-abizenak, helbidea, e-maila, telefonoa, proiektuaren izenburua), eta, bestetik, izengabea izango den ikerketa-proiektua.

**Beka deialdiaren irabazlea:** 14.000 euro jasoko ditu lana egiteko (kopuruaren erdia izendatutakoan eta bestea ikerketaren emaitza entregatu eta epaimahaikideek onepena emandakoan). Azaroa amaieran ezagutaraziko duten irabazleak izendapena jaso eta 18 hilabeteko epea izango du lanaren emaitza antolatzailerari helarazteko.

**Epaimahaia:** deitzaileek hautatutako bost adituk osatuko dute. Honako hauek: Haritz Azurmendik, Maialen Akizuk, Ibai Iztuetak, Ainara Lasak eta Edu Apodakak.

## Oharrak:

-Gogoeten eta ikerketen emaitzak askotariko formak izan ditzake: liburua, ikus-entzuzkoak, webgunea, erakusketak...

-Antolatzaileek bere gain hartuko dute proiektuaren gizarteratzea.

-Erreferentzia gisa, Torrealdaiaren obra osoa digitalizatua du jakin.eus atariak.

**Eskaerak bidaltzeko epea:** 2024ko urriak 21.

**Informazio gehiagorako:** jakin.eus

**Sustatzaileak:** Jakin Fundazioa eta Usurbilgo Udalak.





"Artxibo biluzia" sormen lan kolektiboa aurkezten egileak eta Joan Mari Torrealdai bekaren sustatzaileak, Zumarten.

# "Artxibo biluzia" lan kolektiboa, eskuragarri

Joan Mari Torrealdai bekaren lehen edizioan Metrokoadroka Sormen Laborategiak ondutako "Artxibo biluzia" proiektua aurkezteko baliatu zuten iragan asteko ekitaldia. 400 ale argitaratu ditu Udalak. Eskuragarri dituzue jada.

Joan Mari Torrealdai bekaren bigarren edizioa aurkeztearekin batera, iazko estreinakoan ondutako lana aurkezteko baliatu zuten baita Zumarteko ganbaran eginiko agerraldia; Metrokoadroka Sormen Laborategiak garaturiko "Artxibo biluzia" izeneko proiektua. Askotariko formatuak uztartu ditu, izan ere, antzezlan, ikastaro eta dokumentu fisiko baten forma hartu du proiektuak, egileek beraiek Zumarteko agerraldian azaldu zuten bezala. Dokumentuari dagokionean, izenari eta izanari gorazarre eginez, artxibo itxurakoa da. Barruan bost liburuxka ditu: Metrokoadrokako proiektuak osatzeko eginiko gogoetak, Maria Elorzaren dokumentala, Danele Sarriugarteren egunerokoa, proiektuarekin berri soilik

gutun bidez jasotako informazioa oinarri hartuta Nagore Legarretak eginiko argazki bilduma, eta azkenik, urte hasieran Sutegin estreinaturiko antzezlanean publikoak eginiko ekarpenak jasotzen ditu. Izan ere, ikus-entzuleei galdetu zitzaien idatzi eta egileei helaraztea, ze istorio nahiko luketen historiara pasatzea. "Emanaldietako erantzunak biltzen ditu azken liburuxkak", azaldu zuen Zumarteko agerraldian, aipatu sormen laborategiko kide Idoia Beratarbidetik. Lan hau koordinatu dutenak hain zuzen, Metrokoadrokako kideak izan dira.

## Artxiboa utopia, artxiboa zauri

Lan kolektiboa izan da zalan-tza izpirik gabe. Dokumentalaren egile Maria Elorzak

"neure lana artxibo biluziaren ideia oso subjektiboari irudiak jartzea izan da eta aldi berean, Torrealdairen figurarekin elkarriketan aritzea". Bi elementu nabarmendu zituen, berelanean islatuak daudenak: "Torrealdairentzat artxiboa bazela nolabaiteko utopia edo amets bat eta, bestalde, bere bizitzaren azken fasean artxiboa zauri bat bihurtu zela". Ikus-entzunezkoa Sarriugarteren poema batekin amaitzen da. "Artxibo biluzia" bilduma-

**400 ALE ARGITARATU DITU USURBILGO UDALAK. ESKURAGARRI DITUZUE**

ren parte da hain zuzen Danelek idatzitako egunerokoa. Proiektu honen "sormen prozesua jarraitu dudanez, hori partekatu nahi nuen. Sentsazio horiek transmititu nahi nituen". Horiek denak biltzeko aipatu moduan garatze prozesua barnetik ezagutu du Sarriugarrek. "Zorte handia izan da niretzat", adierazi zuen Zumarteko ganbaran.

## Kalitate handiko lanak

Proiektu hau aipatu moduan, Joan Mari Torrealdai bekaren estreinako ediziotik ondu da. "Euskara eta kultura gaurko eta biharko gizartean", horixe zen jorratu beharreko gaia. 13 lan aurkeztu ziren deialdi hartara, "zein baino zein kalitate handiko lanak", epaimahai-kideek adierazitakoa gogora ekarriz Usurbilgo alkateak iragan asteko agerraldian oroitari zuenez. Metrokoadroka Sormen Laborategiak irabazi zuen beka deialdi hura, haien "Artxibo Biluzia" egitasmoak.

## Askotariko formak

Beka deialdiaren sustatzaileek hasieratik zuten bertatik garatu zitezkeen proiektuak formatu klasikoetatik urruntzeko nahia. Helburu hau guztiz bete dutela adierazi zuen Solaberrietak. "Artxibo biluziak askotariko formak izan eta hartu ditu. Bada antzezlan bat, liburuxka bat, dokumental bat". Horrez gain, Torrealdai "zertarako bati erantzuteko" ikertzen zuela gogorarazi zuen.

Horregatik, zioenez, "gaurko egunak badu hortik. Batek, herriari eskaintzen ari gatzazkiolako lehen beka deialdi honetatik osatu den ikerketa, gogoetak, errelatoak eta, bestetik, bigarren deialdiari ekitera goazelako". "Artxibo biluzia" lan honen 400 ale argitaratu ditu Udalak. Herriko liburu-dendetan eskuratu ahalko dituzue, edota baita 17 eurotan Berriako nahiz NOAUA! K.E.-ren bazkideek.



2023-2024 ikasturtean euskara ikasi dutenek matrikularen %100 jaso ahal izango dute.

## Euskara eta aisialdiko dirulaguntza deialdien oinarriak kaleratu dira

2023-24 ikasturte honetan aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenei nahiz euskara ikasten aritu direnei zuzenduriko dirulaguntza deialdien oinarriak kaleratu ditu Udalak.

### Euskara eta aisialdiko dirulaguntza deialdiak

#### Euskarako dirulaguntza deialdia

- Usurbilgo Udalaren dirulaguntzen oinarri erregulatzailerik ezartzea, norgehiagoka erregimenean, 2023-2024 ikasturtean helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egin dituzten usurbildarrei dirulaguntzak emateko.
- Baldintzak:
  - Usurbilen erroldatua egon eta 16 urtetik gora izatea.
  - Gutxienez, ikastaro osoan zehar, %80ko asistentzia izatea (autoikaskuntzaren kasuan aprobetxamendua ziurtatzea).
  - Gutxienezko aprobetxamendua gainditzea (euskaltegiak egindako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharrekoa).
  - 2023ko irailaren 1etik 2024ko abuztuaren 31 bitartean egindako ikastaroak lagunduko dira diruz: HABEK homologatutakoak eta ez homologatuak.
  - Banatuko den kopurua:
    - Aipatu baldintzak betetako herritarrek matrikula kostuaren %100 jasoko dute (600 euroko muga).

#### Aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak

- Usurbilgo Udalaren dirulaguntzen oinarri erregulatzailerik ezartzea, norgehiagoka erregimenean, 2023-24 ikasturtean zehar aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroa euskaraz egin duen usurbildar orori dirulaguntzak emateko.
- Baldintzak:
  - Usurbilen erroldatua egon eta 16 urtetik gora izatea.
  - Ikastaroa euskaraz izatea eta Eusko Jaurlaritzak homologatua izatea.
  - Ikastaroaren alderdi teorikoa gainditzea eta araututako gehienezko epearen barruan titulua lortzea.
  - 2023ko uztailetik 2024ko ekaina bitartean egindako ikastaroak lagunduko dira diruz.
  - Ikastaroek Eusko Jaurlaritzaren homologazioa behar dute.
  - Banatuko den kopurua:

### IKASTURTEAN ZEHAR %80KO ASISTENTZIA IZAN DUTENEI Matrikularen %100 ITZULIKO ZAIE

- Begirale ikastaroa: matrikularen %50 (gehienez ere 250 euro).
- Aisialdiko zuzendari ikastaroa: matrikularen %50 (gehienez ere 250 euro).
- Aipatutako portzentaje hau gutxitu egin daiteke aurkezten diren eskarien arabera.
- Eskaerak: udal erregistroan edo usurbil.eus atariko dirulaguntzen atalean.
- Epealdia: ekainak 17-28.
- Informazio gehiagorako: ekainaren 3ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.

### Kirol arloko dirulaguntzen ebazpenak

#### Kirol elkarteek ez diren kirol jarduerak burutzeko behin betiko dirulaguntzak

- Eskakerak: 5.
- Banatuko den laguntza kopurua: 2.000 euro.

#### Kirol egokituko jarduerak burutzeko behin betiko dirulaguntzak

- Eskakerak: 1.
- Banatuko den laguntza kopurua: 3.000 euro.

#### Kirol elkarteek ohiko egitasmoak burutzeko behin betiko dirulaguntzak

- Eskakerak: 6.
- Banatuko den laguntza kopurua: 55.555,87 euro.

#### Informazio gehiago:

Ekainaren 3ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.

## Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan lehiatuko da Uxue Fernandez Lasa

Lortu du. Udazkenean jokatuko den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako sailkatu da Uxue Fernandez Lasa herrikidea, iragan igandean Hernaniko Biteri kultur-etxean jokatutako saioa 327 puntuarekin irabazi ostean. Bi multzoetako batean ari zen lehiatzen Fernandez; B multzoan. Multzo horretako zortzigarren postuan amaitu du Gipuzkoa Bertsotan izeneko sailkapen fasea.

Gogoan izan, ekimen hau, Gipuzkoa Bertsotan, apirila amaieran hasi zela 74 bertsolariren parte hartzearekin. Lehen fase hartan, Gabiriako saioan aritu zen Fernandez. 48 bertsolari sailkatu ziren bigarren faserako. Bigarren fase honetan, Hernanin jokatutako saioa izan zen Fernandez. Azkenetako bat. Izan ere, ekainaren 2ko azken hitzorduekin amaitu da Gipuzkoa Bertsotan sailkapen ekimen hau.

### B multzoko zortzigarrena

48 bertsolarietatik 34 izan dira azkenean, udazkeneko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako sailkatu direnak; hamazazpina multzo bakoitzetik. A multzoan, sailkapen buruan amaitu du Aner Peritz Manteolak eta B multzokoan, Maider Arregi Markuletak. B multzo horretako zortzigarren postuan Uxue Fernandezek Zorionak!



Aurreko igandean Hernanin izan zen.





Esther Arrojeriak denboraldiko hirugarren txapelketa irabazi du Bera Berarekin.



Eneko Furundarena eta Bidasoa Irun taldea bigarren izan dira Kopan.

# Bera Bera Ligako txapeldun, Bidasoa Irun Errege Kopako txapeldunorde

Usurbildarrak kide izan eta punta-puntan dabilzan herritik kanpoko bi kirol taldeen berri segidan.

Bera Berak bederatzigarren aldiz Liga irabazi zuen asteburuan, Elxeren aurkako neurketa 27 golekin berdinduta amaitu ondoren eta "asteaz-

kenean Gascan lortutako garaipena baliatuz". Talde honetan ari da lehiatzen Kalezarko Esther Arrojeria. Taldeko bigarren entrenatzailea da

Jon Begiristain. Ligarekin batera, gogoan izan, Superkopa eta Kopa ere irabazi dituela taldeak denboraldi honetan.

### Bidasoa Irun, txapeldunorde

Bestalde, Errege Kopako finalera sailkatzeaz egon da Bidasoa Irun taldea. Ostiralean, final laurdeneko partida jokatu zuen Ciudad Realen aurka eta 43-28 irabazi zion taldeak.

Biharamunean, finalerdiko neurketa. Barça izan zuen aurkari eta tarte txikiz, 28-32 galdu zuten. Errege Kopako

txapeldunorde amaitu du taldeak, bigarren postuan. Gogoan izan, bertan ari dela jokatzen Eneko Furundarena.

Asteburuko txapelketa honen denboraldia amaitutzat eman du Bidasoa Irunek. "Liga Plenitudeko txapeldunordetza, Errege Kopako finalerdietara iristek eta EHF European Leagueko 2024/2025 Multzoen Faserako txartela edukitzeak bidasoatarrentzat ikastaroa bikaina izatea eragin dute. Datorren denboraldian ikusiko dugu elkar!", iragarri dute.

## Oiاردoko udako ikastaroetan matrikulatzeko aukera

Ekainaren 12ra arteko tartea izango dute interesdunek online (galdetegi bat beteta) Oiardo kiroldegiko udako ikastaroetan izen-emateko. Aurreko urteen antzera, aretoko zein uretako ikastaroak eskainiko dituzte haur, gazte zein helduentzat.

### Aretoko jarduerak:

- Helduentzat. Spining, pilates, 3. adina, mantenu gimnasia, "Total Training" eta erditze ondorengoa.

- Gazteentzat. Uda kirol (12-16 urte).
- Haurrentzat. Kirol txokoak (LH1-6 bitartean) eta eskalada.

### Uretako jarduerak:

- Helduentzat. Haurdunak (ur jarduerak eta pilates), igeriketa hastapena, igeriketa hobekuntza, errendimendua eta aquagym.
- Igeriketa taldeak. Haurtxoak (0-1 urte), haurtxoak (2-3 urte), HH4, HH5, LH1-LH2 eta LH3-LH4+.



QR kodearen bitartez matrikulazioa osatzeko formulariora helduko zara.

## Kickboxing erakustaldia

Astero bitan elkartzen dira, Oiardo kiroldegiko tatamian kickboxing-a praktikatzeko, astearte eta ostegunetan, 19:00-20:00 artean probatu nahi duenarentzat. Jarduera ezagutzeko aukera berri bat izango da larunbatean, ekainaren 8an, 17:00etan Oiardo kiroldegian bertan. Dinamikahaukudeatzen duen Kuraia taldeak "Kolpez kolpe. K1- sutan" erakustaldia antolatu du. Lau talde kideek parte hartuko dute saioan.

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
9:00-13:30  
ASTEARTETIK LARUNBATERA  
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

*Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!*  
**USURBILGO HORTZ KLINIKA**  
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22  
943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra  
  
693 059 392  
uraitz@uraitz.com USURBIL



"Aitaren lokala libre geratuko zela ikusita, guk hartzea erabaki genuen", aitortu digu Aitziber Rubiok.

# “Kudeaketaz arduratu beharrak alde onak eta txarrak ditu”

**AITZIBER RUBIO ETA ANDRES TRIGO** MABIOK FISIOTERAPIA ZENTROA

Zaragozan ikasi eta lan egin ondoren, euren zentro propioa ireki dute Aitziberren aitak Alperroburu kaleko 1. zenbakian zuen masaje zentroan.

**Duela gutxi ireki duzue fisioterapia zentro berria. Nolatan erabaki zenuen negozio honekin hasiatea?**

**Aitziber Rubio:** Ideiari bueltaka urte pare bat generamatzen. Nire aitak egiten zuen lan hemen lehen, masajista zen. 15 urte egin zituen zentro honetan eta lehenago Munalurren ere bai. Hark utzi egin nahi zuen lana nekatuta zegoelako eta jubilatzeke erabakia hartu zuen. Lokala libre geratuko zela ikusita, guk hartzea erabaki genuen. Ikasketak amaituta oinarritzko jakintzak baino ez dituzu, eta guk zerbitzu osoagoa eman nahi genuen. Beraz, urte batzuk hartu ditugu formakuntzarekin jarraitzeko eta Usurbilera behar besteko esperientzia eta presaketarekin etortzeko. Makinak ekarri ditugu eta horiek erabil-

tzeko formakuntza eta esperientzia bilduta. Hori bai, zentroari irudi aldaketa bat egin diogu: hormak margotu, apaingarri eta altzariak aldatu, antolaketa buelta bat eman... Lekuagutziz ezberdina da, nahiz eta jarduera nahiko antzekoa izan. Gu fisioterapeutak gara, eta beraz, lokala osasun zentroa da egun. Lizentzia hori lortu behar izan dugu eta burokrati-

**"GU FISIOTERAPEUTAK GARA, BERAZ, GURE LOKALA OSASUN ZENTRO BAT ERE BADA"**

koki ere aldaketa batzuk egin behar izan ditugu.

**Zaila da negozio bat zerotik hasiatea? Lan burokratiko asko egin behar da?**

**A.R.:** Lan burokratiko ugari egin behar izan dugu, bai. Jarduera lizentzia normala zeukan lokal lehen, eta berria eskatu behar izan dugu. Zentzu horretan, udalak ez digu inolako arazorik

**"FISIOTERAPIA ETENGABE ALDATZEN ARI DA ETA FORMAKUNTZA BEHARREZKOA DA"**

jarri. Gipuzkoako osasun arloan hainbat txosten bete behar izan ditugu eta inspektzioa ere pasatu digute. Inolako arazorik gabe egin dugu bide hori.

**Besteren kontura lanean aritu zarete orain arte lanean? Asko aldatzen dira eginbeharrak?**

**A.R.:** Andres Zaragozako da eta nik han egin nituen ikasketak. Han ezagutu genuen elkar eta ikasketak hasi bezain pronto egin ginen bikote. Ikasketak amaituta, zentro berean egin genuen lan Zaragozan bertan. Soldata ez zen oso altua eta ordu pila bat egiten genituen. Joan egin nahi genuen bertatik eta aitaren jubilazioa oso ederki etorri zitzaigun. Biok betidanik lankideak izan gara, eta beraz, orain ez daukagu inolako arazorik elkarrekin lan egiteko. Kudeaketaz arduratu beharrak alde onak eta txarrak ditu. Alde batetik, ordutegiak guk erabakitzen ditugu eta antolatuta ere nahi bezala egiten dugu lana. Bestalde, hainbat kontu administratibo egunean eraman behar ditugu eta hori egin beharra daukagu. Erantzukizun gehiago dugu orain, baina lana bera da. Kudeaketan ere lan banaketa eginda daukagu. Andresek ez dakienez euskaraz, paperak sinatu eta txostenak egiteaz ni arduratzen naiz, eta Andres materialaz gehiago arduratzen da.

**Eguneroko lanean, biok prozedura berak egiten dituzue edo bakoitzak arlo batean zaudete espezializatuta?**

**A.R.:** Fisioterapia etengabe aldatzen ari da eta makina berriak sortzen dira etengabe. Horiek erabiltzen jakiteko etengabeko formakuntza beharrezkoa da, baina inoiz aldatuko ez dena eskuak erabili beharra da. Lanerako fisioterapeutok eskuak behar ditugu, baina eskuak ez dira denera heltzen eta makinak behar ditugu.

**Andres Trigo:** Ni belaunetan espezialista naiz eta belaunez arduratzen naiz, batik bat. Zaragozan ere hala zen eta hori



mantentzea erabaki dugu. Hiru aldiz egin didate belauneko ebakuntza eta zonalde horren errehabilitazioaz gehiago dakit. Belaunetako arazoak dituztenak zuzenean niregana bideratzen ditugu, baina Aitziberrek ere arazorik gabe egin ditzake. Gai-nontzeko kontuak bion artean egiten ditugu bestelako bana-keta berezirik gabe.

### **Nolako bezeroak dituzue eta etorkizunean espero dituzue?**

**A.R:** Kirol fisioterapiari gaude espezializatuta. Horrek ez du esan nahi kirolaria ez dena hartuko ez dugunik, gure zentroan denak dira ongi etorriak. Kirol arloan sartuta gaude, lesioak eta prebentzioa lantzeraz gaude ohituta. Formakuntza ere bide horretan egin dugu.

### **Zer moduzko harrera izan du? Bezeroak lortzen ari zara?**

**A.R:** Lehen astea kaos bat izan zen. Lekua berria da eta gela guztietan zer zegoen ez genekien oraindik. Horren ondorioz, nahi baino mantxoxeago ibili ginen, baina oso gustura gaude. Jendea etortzen ari da eta oso pozik dago aldaketarekin. Pixkanaka ari gara hasten, jendea egiten duguna ezagutzera ematen eta lanaz gozatzen.

**A.T:** Lehen asteetan oso urdu-ri ibiligarra. Jendeak aukera eman digu gurekin probatzeko eta konfidantza hori oso eskertzekoa da. Jende asko ez dago gauza hauetara ohituta. Ez da-



"Webgunea ireki dugu, mabiokfisioterapia.com, guri buruzko informazio osoa eta erabiltzen ditugun teknikei buruzko informazioa emateko".

kigu hobea edo okerragoa den, baina ezberdina da. Oso feedback ona eman digute eta oso asebeteta sentitzen gara.

### **Nola lortu duzue ezagutzera ematea?**

**A.R:** Webgunea ireki dugu mabiokfisioterapia.com guri buruzko informazio osoa eta

erabiltzen ditugun teknikei buruzko informazioa emateko. NOAUA'n eta Lasarteko jaietako katalogoan ere iragarkiak jarri ditugu.

**A.T:** Sare sozialetan ere bageaude. Mabiok\_fisioterapia izena jarrita aurkituko gaituzue sare sozial gehienetan, instagramen esaterako. Pre-

## **"KIROL ARLOAN SARTUTA GAUDE. LESIOAK ETA PREBENTZIOA LANTZERA GAUDE OHITUTA"**

## **"GAIZKI SENDATUTAKO LESIO ASKO IKUSTEN DITUGU, EDOTA SENDATU GABEKOAK"**

siorik gabe, pixkanaka ezagutzera ematea da asmoa, lasai-lasai.

### **Askok fisioterapia hezur eta muskuloak zaindu eta osatzearekin lotzen dute, baina alderdi psikologikoarekin ere lotzen dute askok. Zeintzuk izango dira zentroan eskainiko dituzuen zerbitzuak? Nori daude zuzenduta?**

**A.R:** Guk ez dugu zerbitzu psikologiko hori lantzen, ez eta zoru pelbikoaren tratamendua edo bestelakorik ere. Guk ez ditugu adar guztiak gure kontu hartu nahi, bakoitzak bere formakuntzari lotutakoak egin behar dituela uste dugu, eta guk adar horietan ez dugu formakuntzarik jaso. Halako beharrak dituztenek formakuntza hori jaso duten fisioterapeutengana jo behar dutela uste dugu. Osasun mentala oso gai interesgarria da eta jendeak landu behar duen alderdia da eta horri babesa eman nahi diogu guk ere. Hala ere, guk ezin ditugu zerbitzu guztiak eduki. Halako beharrak dituztenak etortzen bazaizkigu bideratuko ditugu profesional egokietara. Adar ugari ditu fisioterapiak, baina gu lesioetan, errehabilitazioan eta kirolari lotutako adar horretan gara espezialistak eta horretara bideratutako zerbitzuak eskaintzen ditugu. Erabiltzen ditugun teknikak ere adar horri lotutakoak dira.

## **"Zorionez, jendea gero eta lehenago etortzen da fisioarengana"**

### **Haurrekin ere lan egiten al duzue?**

**A.T:** Bai, ume asko etortzen dira eta Aitziberrek pediatriako adarra ere ikasi du. Haur txiki-txikiekin ere lan egin genezake oraindik bularra hartzen duten haurrekin ere, baina hori ez dugu horrenbeste egiten. Aitziberrek ezagutzak badi-  
ditu.

**A.R:** Haurrekin lan egiten dugunean, gurasoei prozeduren azalpena ematea oso garrantzitsua da seguru senti daitezen. Ez baditugu prozedurak azaltzen, paziente batzuk oso pasiboak izaten dira eta ez dugu hori nahi. Lesioen gainean norberak izan behar du arduraduna. Guk lagunduko diegu, jakina, baina ariketak

egin eta ardura hartzea pazienteen kontua da. Guk ez dugu magiarik egiten.

### **Jendeak geroz eta gehiago zaintzen du bere burua?**

**A.R:** Bai, fisioarengana lehenago etortzen da jendea eta prebentzioari ere garrantzia ematen dio. Gizartea geroz eta kirolariagoa da, eta hori oso ona da osasunarentzat.

Hala ere, ez dugu itxaron behar lesio bat izan arte. Entrenatu egin behar da helburuak lortzeko eta prebentzioa oso garrantzitsua da etorkizuneko lesioak prebenitzeko. Gaizki sendatutako lesio asko ikusten ditugu edo oraindik sendatu gabe dauden lesioak pazientearen ustez jada sendatuta daudenak.



Gipuzkoan 53 talde osatu dira; tartean da Hitz Aho guraso elkartetik sortu dena.

## 'Altxa burua' Gipuzkoako sarearen topaketa

Mugimendu honek hirugarren topaketa egingo du ekainaren 13an, arratsaldean, 18:00-20:00 artean Udarregi ikastolako eraikin gorriko erdiko aretoan.

Seme-alabei interneterako sarrera duten gailuak ematea atzeratu, eskolak telefono mugikorrik gabeko gune bihurtu

edota gailuon erabilera egokia sustatzeko Gipuzkoan lanean diren guraso taldeen sarea da "Altxa burua!". Gipuzkoa mai-

lan dagoeneko 53 talde osatu dira; tartean da, Udarregi ikastolako Hitz Aho guraso elkarteteko kideak ere. "Hitz Aho guraso taldean, pantailen erabilera egokia eta hauek seme-alabei ematea atzeratzea lantzen ari dira duela urte batzuetatik hona. Gaur egun, Gipuzkoako 50 herri eta hirietako auzoetako lantaldeak dabilta proiektuan murgilduak".

### 18:00etatik 20:00etara, eraikin gorrian

Mugimendu honek hirugarren topaketa egingo du ekainaren 13an, arratsaldean, 18:00-20:00 artean Udarregi ikastolako eraikin gorriko erdiko aretoan. Bertan, "alde batetik, talde bakoitzeko ordezkarien batzarra antolatu dute eta bestetik, "elkar-indartze eta aldarrikapen" saio bat izango da (talde-dinamika), herri bakoitzetik, usurbildarrak barne, nahi duenarentzat irekia".

## Zorione Mendez, "Vachoca" tailerreko saioan

Zorione Mendezek "Vachoca" tailer artistikoaren saio berria gidatuko du ekainaren 17an, 11:00-12:30 artean. Gogoan izan, "etxea gaitzat harturik, tailer artistiko bat bideratuko da modu praktiko batean. Material desberdinekin esperimentatuz eta jolastuz momentu atsegin bat igaroz. Bakarkako zein taldeko ariketak egingo dira bertan. Proiektuan zehar ezagututako pertsonen egoerak kontatuko dira elkarrizketa eta kontzientziakritiko eraikitzailea bultzatuz". 15 lagunentzako lekua egongo da tailer artistiko honetan.

Izena aurrez eman beharko da, ganbara.sormentailerra@gmail.com helbidean. Herri-tar orori zehaztua egongo da, elebitan eskainiko den saioa.

**Hau da kuxkako giltzarra.**

**Giltza**  
Mari Purtilen altxorren kutxa zabaltzeko, giltzarraoaren giltza behar da. Zein da? Aurkitu nahi baduzu, formari erreparatu behar diozu.

**Han eta Hemen**  
Badina hogeitau gauza bi irudietan ageri direnak. Ea aurkitzen dituzun.

**SOSLaia**  
Zein da zomorro itsusi honen silueta zuzena?

**Altxorrak**  
Baina zer gordetzen ote du Mari Purtilen giltzapean? Hitzki zopa honek esango dizu. Bila ezazu ongi eta bederatzitik elementu aurkituko dituzu: hiru jateko dira: bi, apaintzeko; bi, jolasteko; bat, jotzeko; eta beste bat, jantzeko.

**Dadoa**  
Zortzi dado hauetatik lau beheko irudi zabalduarekin bat datoz, eta beste laurak ez. Zeintzuk dira onak? Asmatzea zaila baldin bazaitu, irudi zabaldua paper batean marraztu eta dadoa muntatu.

**Labirintoa**  
Lagundu ahate arrari ahate emarekin elkartzen, urmalean.

Plazan Bazan 12/13. orrialdeetako soluzioak.



## MERKATU TXIKIA

## EREBIZITZAK

## SALGAI

Pisua salgai Aginagan, Elutx kalean. 3 logela, 2 bainugela eta sukalde. Garaje marra eta trastelekua barne. 685711912.

## ALOKAIRUAN

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki baten bila gabilta. 627184674

Lursail ez urbanizagarri baten bila nabil Usurbilen, Aginagan edo Zurbietan. 617 771 303.

## MOTORRA

## SALMENTA, GARAJEAK

Seat Arona Style salgai, 2 urte, 10.000km. Beti garajejan egon da. 620098748

## IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUAIKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko, herriaren erdialdean. 636601644.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAINTZAK

Usurbilgo Andatza tabernan lan egiteko, zerbitzari eta sukalde laguntzaile/sukaldari baten beharrean gaude. Garrantzitsua esperientzia izatea. Deitu 670654272 edota bertatik pasa.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Emakume bat, interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen. 624744514.

Interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen 641136135.

Usurbil edo inguruetan garbiketa lanak egiteko prest, 74745055

Saizarren zerbitzaria behar da, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

Aginaga sagardotegian txotx garaian larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 366 710.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAERAK

Etxeko garbiketako lanetarako nahiz toki gehiago garbitzeko lan bila nabil. Harremanetarako, hona deitu: 632 909 058.

Umeak zaintzeko prest nago, esperientzia askorekin, 695 18 41 79

Garbiketa lan orokorrak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko, lan bila nabil. 607455413

Pertsona helduen zein haurren zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Baita zerbitzari edo garbiketa lanetarako ere. 687126811

## BESTELAKOAK

Pertsona helduentzako gurgildun aulkia salgai, berri-berria. Inovys II RG C markakoa. Oinak altuan jartzeko posizioa dauka eta burua eusteko soportea. Intesatuak deitu 666894283 telefono zenbakira (Ana).

## TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkarte Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldetgia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna, 06	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Ostirala, 07	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Larunbata, 08	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Igandea, 09	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Astelehena, 10	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Asteartea, 11	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Asteazkena, 12	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Osteguna, 13	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Ostirala, 14	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Larunbata, 15	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Igandea, 16	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49

## GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Mañe i Flaquer plaza, 6 Hernani 943 57 64 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

## Aitor Aranguren Errastik Baikon segiko du beste bi urtez

2018ko ekainean, duela sei urte debutatu zuen aginagarrak. Sei urteren buruan, maila profesionalean segiko du, 2026. urtera arte gutxienez. Baiko Pilotarentzat eginiko lehen adierazpenetan Aranguren gustura agertu da, "sei urte noalako enpresan". Orain, kontratua beste bi urtez luzatuta, aurrera begira duen erronka zein den nabarmen-



Aitor Aranguren, Baikoko pilotaria.

du du. "Ea baliatzen dudana aukera hau, gorantz egin eta maila on bat emateko".

## Pilota partidak

## Gipuzkoako Udaberri

Txapelketa eskuz binaka,

Infantilak 2. Maila:

Ekainak 7, ostirala,

18:00 Usurbilgo frontoian:

-Pagazpe

(Ekain Alejo-Markel Alejo)

-Lapke 5

## HILDAKOAK



Jesús

Olaizola

Zabala

Maiatzaren 30ean

hil zen, 87 urterekin

## Zorion-agurrak

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta ipini nahi duzun testua.

Etor zaitetz gure bulegora bestela, edo telefonoz deitu: 943 360 321.

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

## OSTIRALA 07

## USURBIL Udarregi Ikastolaren Eguna

17:00etan Txokolate jana.  
18:00etan Dj Mendi.  
Askatasuna plazan.

## USURBIL Orbedikoen ikasturte amaierako emanaldia

19:00etan kiroldegitik irteera.  
19:30ean dantza emanaldia  
Artzabalgo plazan.



Asteburu honetan ospatuko da Ikastolaren Eguna.

## LARUNBATA 08

## USURBIL Udarregi Ikastolaren Eguna

Goizean zehar, LH eta DBHkoen jolasak. 14:00etan Ikastolako bazkaria frontoian.

## IGANDEA 09

## USURBIL Europako hauteskundeak

Europako Parlamentu berria osatzeko bozketa eguna.  
9:00-20:00 bozketarako ordutegia.

## USURBIL Txikitako jolasak eta karaokea Santuenean

"Gure txikitako jolasetan parte hartzeko aukera paregabea izango dugu familia giroan: txingoa, txapak, xiba, goma, sokasaltoa eta abar".

16:30 Santuenean.

## Ikasturtea agurtzeko ordua

## Ekainak 7, ostirala

17:00 Txokolate jana.  
18:00 Dj Mendi Askatasuna plazan.

## Ekainak 8, larunbata

Udarregi Ikastolaren Eguna.  
Goizean zehar, LH eta DBHkoen jolasak.  
14:00 Ikastolako bazkaria frontoian (txartelak maiatzaren 30era arte egon ziren salgai).

17:00 DBHko ikasleen emanaldia.

## Ekainak 14-16

"Usurbil Eskola Agenda 2030" erakusketa Sutegin.

## Ekainak 14, ostirala

9:30 "Agenda 30", ikasleen aurkezpena osoko bilkura gelan.  
Antolatzaileak: Udarregi ikastola eta Hitz Aho.

## Orbeldi dantza taldearen kalejira eta emanaldia

Orbeldi dantza taldeak ostiral honetan agurtuko du ikasturtea. Kalejiran ibiliko dira eta ikasturtean zehar ikasitakoa ere erakutsiko dute Artzabalen. Arratsaldeko 19:00etan Kiroldegitik irtengo dira kalejiran eta 19:30ean dantza emanaldia eskainiko dute Artzabalen.

## Gipuzkoako pentsiodunen batzarra

Gipuzkoako pentsiodunen batzarra ekainaren 13an ospatuko da Sutegin. Bilkura goizeko 10:00etan hasiko da.

## Bertso-afaria Kalezarren

Kalezarko Peña Pagola elkarteak bertso-afaria antolatuko du ekainaren 15erako. Jexux Irazu eta Aitor Mendiluze bertsolariak arituko dira. Izena emateko epea maiatzaren 31n itxi zen.

## Folklore eta Elektropapo Aitzaga aurrean

Ekainaren 15ean larunbata, Folklore eta Elektropapo taldeak zuzenean arituko dira Aitzaga tabernaren aurrean. Kontzertua gaueko 21:00etan hasiko da.

**ZALDIGAIN**  
ERREMENTARIA  
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.  
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak....  
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com  
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867

Zuen  
publizitatea  
hemen  
943 360 321

USURBIL DÖNER KEBAB  
843 675 265  
603 609 183  
USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL\_DK  
Borda Berri Kalea, 5

**Iturgintza**  
BEROKUNTZA • GASÀ • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com  
600 024 825



*Elexpe*  
deapaindegia

- BETILEEN TINTAKETA
- BETILEEN PERMANENTEA
- ESTETIKA
- TATUAIK
- ZUTIKAKO ETA
- ETZANDAKO SOLARIUM-A



MUNA LURRA 12. USURBIL - 943 370 462

## Praktika onak sustatzen: PAPERA ETA KARTOIA

- ▶ Ahal dela, erabili poltsa urdina.
- ▶ Poltsa zintzilik utzi beti: ez utzi lurrean.



- ▶ Poltsa urdina udaletxeko bulegoan jaso dezakezu, doan.
- ▶ Kartoi handiak Garbigunera eraman ditzakezu.



Informazio gehiago: Atez ateko bulegoa Joxe Martin sagardia plaza z/g (udaletxea)  
900 776 776 / 606 501 024 atezate@usurbil.eus



Usurbilgo Udala

# OSASUN GIDA

## eskura

elikadura eta dietetika aholkularitza

- diabetesa ·hipertentsioa ·gizentasuna
  - elikadura eta kolesterol arazoak
- elikadura ohiturak zure neurria aldatzen laguntzen dizugu!

688 843 696 ZUBIAURRENA 1, 1C USURBIL

## MABIOK FISIOTERAPIA

Ekografietan, terapia inbasiboetan eta eskuzko terapietan adituak

- Lesio erreadaptazioa
- Diatermia
- Ariketa terapeutikoa



Alperro Buru kalea 1, 8aB (20170)  
T. 608 671 925 / 943 372 658  
Sare sozialak: mabiofisioterapia  
Webgunea: mabiofisioterapia.com

## Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

943 11 09 54

etorri zaitez zure oinen eta posturaren azterketa bat egitera!

sustraitu osasuna oinetatik



## zenta

### ORTOPEDIA BAT BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen salmenta eta alokairua.
- Etkez-etxeke zerbitzu tekniko espezializatua.
- Etxebizitzaren egokitzapena.

[www.zenta.es](http://www.zenta.es)

Osakidetzarekin hitzarmena

Errekalde 59, Donostia 943 105 205

## Irati Ibargoien

FISIOTERAPIA - OSASUN ZENTROA



- Fisioterapia
- Osteopatia
- Haurdunaldia
- Pilates terapeutikoa
- Psikologia
- Zoru pelbikoa

943 53 92 66  
623 46 26 58

Puntapax kalea 68, beheak ezk. Usurbil 20170 irati.ibargoien@gmail.com  
@irati\_ibargoien\_fisioterapia www.iratiibargoien.com



## USURBIL OPTIKA

PROGRESIBO,  
URRUTIKO  
ETA GERTUKO  
BIGARREN LENTE  
PAREA DOAN!

# 2x1

943 37 02 69

ZUBIAURRENA 10, USURBIL [usurbiloptika@hotmail.com](mailto:usurbiloptika@hotmail.com)

- Dosifikazio sistema pertsonalizatua
- Dermofarmazia
- Produktu homeopatikokoak
- Maisu formulak

## Iturraldebotika

Tomas Iturralde botika  
33/22 PEZ.

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

